**ERABAKIA, 2022ko AZAROAREN 30ekoa, UPV/EHUko IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, PROZEDURA ZEHAZTEN DUENA IRI FUNTZIONARIO ETA LAN KONTRATUDUNEK IRAKATS AHALMENAREN MURRIZKETA ESKATZEKO, ERRETIRO ARRUNTERAKO ADINA BETETZEN DUTEN IKASTURTEA AMAITZEAN ERRETIROA HARTZEKO KONPROMISOAREKIN, ETA LAN KONTRATUDUNEK ERRETIRO PARTZIALA ESKATZEKO.**

**RESOLUCIÓN, DE 30 DE NOVIEMBRE DE 2022, DEL VICERRECTOR DE PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR DE LA UPV/EHU, POR LA QUE SE ESTABLECE EL PROCEDIMIENTO PARA SOLICITAR LA REDUCCIÓN DE LA CAPACIDAD DOCENTE CON COMPROMISO DE JUBILACIÓN DEL PDI FUNCIONARIAL Y LABORAL AL FINALIZAR EL CURSO EN EL QUE CUMPLA LA EDAD DE JUBILACIÓN ORDINARIA, ASÍ COMO EL ACCESO A LA JUBILACIÓN PARCIAL DEL PERSONAL LABORAL.**

2002ko urriaren 20an Gobernu Kontseiluak onartu zuen Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana (I. fasea): erretiroa iragateko neurriak (2022ko urriaren 28ko EHAA).

Con fecha 20 de octubre de 2022 se ha aprobado por el Consejo de Gobierno el plan de racionalización de recursos humanos de la UPV/EHU (fase I): Medidas de tránsito a la jubilación. (BOPV de 28 de octubre de 2022).

Arrazionalizazio planeko 3. artikuluan aipatzen da IRIek irakats ahalmena murriztu ahal izango dutela erretiro arrunta hartu aurreko lau ikasturteetan, baldin eta konpromisoa hartzen badute erretiro arrunterako adina betetzen duten ikasturteko abuztuaren 31n erretiroa hartzeko. Gainera, tarteko epe bat ezarri da, 2026/2027 ikasturtera arte, murrizketa sistema berrirako pausoa modu egokiagoan emateko. Bitarte horretan eskatu ahal izango da irakats ahalmena murriztea eta erretiro arrunterako adina beteta izan barik erretiroa hartzea.

En el artículo 3 del citado plan de racionalización se contempla la posibilidad de reducción de la capacidad docente del PDI durante los cuatro cursos académicos anteriores a la jubilación ordinaria del trabajador/a, asumiendo el personal que se acoja a esta reducción el compromiso de jubilarse el 31 de agosto del curso académico en el que cumpla la edad de jubilación ordinaria. Además, para articular un tránsito adecuado al citado régimen de reducciones se ha establecido un periodo transitorio hasta el curso 2026/2027 durante el cual, podrá solicitarse la reducción de capacidad docente accediendo a la jubilación con una edad inferior a la de jubilación ordinaria.

Helburu berarekin, 2015eko uztailaren 24ko eta azaroaren 27ko akordioen babespean erretiro egoerara pasatzeko neurriren bat baliatzen ari diren pertsonek aukera izango dute 2022ko abenduaren 31 arte Plantilla Arrazionalizatzeko Planeko neurriren bat eskatzeko, baldin eta aurretik zeukaten murrizketari uko egiten badiote, eta lanaldiaren murrizketa egokitzen badute, II. xedapen iragankorrean zehazten den bezala

Con el mismo objetivo, aquellas personas; que ya se encuentran acogidas a alguna de las medidas relacionadas con el tránsito a la jubilación, concedida en virtud de los acuerdos de 24 de julio de 2015 y 27 de noviembre de 2015, que así lo deseen podrán optar hasta el 31 de diciembre de 2022, por alguna de las medidas previstas en el Plan de racionalización aprobado por el Consejo de Gobierno, en fecha 20 de octubre de 2022, renunciando a la reducción previamente concedida y con la consiguiente adecuación de la reducción de jornada, tal y como establece la Disposición transitoria II.

Era berean, planeko 5. artikuluan zehazten da indarrean jarraitzen duela UPV/EHUko lan kontratudun langileen erretiro partzialerako planak, nahiz eta erretiro partziala ez den bateragarria izango 3. artikuluan aipatutako murrizketarekin.

Así mismo, el artículo 5 de dicho plan de racionalización establece el mantenimiento del Plan de Jubilación Parcial del personal laboral de la UPV/EHU, si bien, el acceso a la jubilación parcial no es compatible con la reducción de capacidad recogida en el artículo 3 .

Bai irakats ahalmenaren murrizketa eskatzeko eta bai erretiro partziala eskatzeko, urtean bi deialdi egingo dira, behar den moduan iragarriko direnak.

El acceso a la reducción de capacidad docente, al igual que acceso a la jubilación parcial se articulará con carácter general por medio de dos convocatorias anuales que serán debidamente publicitadas.

Neurri hauen berri ahalik eta gehien zabaltzeko, eta eskariak tramitatzeko, beharrezkoa da prozedura bat ezartzea, baldintzak, betebeharrak eta epeak arautuko dituena irakasle-ikertzaileek eskubideok baliatu ahal izan ditzaten.

Al objeto de garantizar la máxima publicidad de estas medidas, así como la tramitación de las solicitudes presentadas resulta necesario establecer el procedimiento que regule las condiciones, requisitos y plazos para el acceso por el personal docente o investigador a estos derechos.

Horregatik, UPV/EHUko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakiaren bidez eskuordetu zaizkidan eskumenak erabiliz (2021eko otsailaren 12ko EHAA), erabaki hau ematen dut, prozedura ezartzen duena honako hauek eskatzeko:

Por todo ello, en virtud de las competencias delegadas por Resolución de 28 de enero de 2021 de la Rectora de la UPV/EHU (BOPV de 12 de febrero de 2021) procedo a dictar Resolución por la que se regula el procedimiento para solicitar:

1. IRI funtzionario eta lan kontratudunen irakats ahalmena murriztea, erretiroa hartzeko konpromisoarekin:
   a) Irakats ahalmena murriztea.
   b) 2015eko uztailaren 24ko eta azaroaren 27ko akordioen babespean lortutako irakats ahalmenaren murrizketa aldatzea.
2. IRI lan kontratudunek erretiro partziala hartzea.

1. La reducción de la capacidad docente con compromiso de jubilación del PDI funcionarial y laboral:
   a) Reducción de la capacidad docente.
   b) Modificación de la resolución de reducción de capacidad docente previamente concedida al amparo de los acuerdos de 24 de julio y 27 de noviembre de 2015.
2. El acceso a la jubilación parcial del personal laboral del PDI.

## 1. ***<u>IRAKATS AHALMENA MURRIZTEA ESKATZEKO PROZEDURA</u>***

### 1.1.- Helburua eta pertsona eremua

Deialdi honetan eskaria aurkeztu ahal izango dute 2022/2023 ikasturteko bigarren lauhilekoan edo 2023/2024 ikasturteko lehen lauhilekoan hasita, eta erretiroa hartzeko konpromisoarekin, irakats ahalmena murriztu

## 1. ***<u>PROCEDIMIENTO DE SOLICITUD DE REDUCCIÓN DE CAPACIDAD DOCENTE</u>***

### 1.1.- Objeto y ámbito personal

Podrá presentar solicitud en base a esta convocatoria el personal que, cumpliendo los requisitos para ello, desee acceder a la reducción de capacidad docente con compromiso de jubilación, con inicio en el

nahi duten irakasle-ikertzaileek, horretarako betebeharrak betetzen badituzte

**1.2.- Baldintzak eta betebeharrak.**

1.2.1.- Hauek dira irakats ahalmena murrizteko eskatzen diren betebeharrak, 2022ko urriaren 20ko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planeko 3.6 artikuluko egokitze tartearen aplikazioan.

a) Unibertsitateko irakasleen kidegoetakoren bateko edo irakasle kategorietakoren bateko karrerako funtzionarioa edo lan kontratudun finkoa izatea, hurrenez hurren, eta UPV/EHUn behin betiko lanpostu bat betetzen egotea, arduraldi osoan, zerbitzu aktiboko administrazio egoeran edo lanpostua gordeta izatea dakarren beste edozeinetan; edota egonkorra izatea edo plaza hutsa betetzen dagoen bitartekoa izanik UPV/EHUn 10 urteko antzinatasuna izatea zerbitzu efektiboak betetzen.

b) Unibertsitateko irakasleen kidegoetakoren bateko edo irakasle kategorietakoren bateko karrerako funtzionarioa edo lan kontratudun finkoa izatea, hurrenez hurren, eta UPV/EHUn behin betiko lanpostu bat betetzen egotea, arduraldi osoan, zerbitzu aktiboko administrazio egoeran edo lanpostua gordeta izatea dakarren beste edozeinetan; edota egonkorra izatea edo plaza hutsa betetzen dagoen bitartekoa izanik UPV/EHUn 10 urteko antzinatasuna izatea zerbitzu efektiboak betetzen.

c) 2022ko abuztuaren 31n 58 urte izatea MUFACEko klase pasiboetakoen kasuan, edo 61 urte izatea Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrekoen kasuan.

d) Erretiroa hartzea 3.6 artikuluko 1. taulan agertzen den adina betetzen den ikasturteko abuztuaren 31n (ikasturtea irailaren 1ean hasi eta abuztuaren 31n amaitzen dela ulertuta).

segundo cuatrimestre del curso 2022/2023 o en el primer cuatrimestre del curso 2023/2024.

**1.2.- Requisitos y condiciones**.

1.2.1.- Requisitos para poder acogerse a la convocatoria de reducción de capacidad docente en aplicación del régimen transitorio establecido en el artículo 3.6 del Plan de racionalización de recursos humanos de 20 de octubre de 2022.

a) Pertenecer como personal funcionario de carrera o laboral fijo a alguno de los cuerpos docentes universitarios o alguna de las categorías docentes, respectivamente, y ocupar con carácter definitivo, plaza en la UPV/EHU en situación administrativa de servicio activo o en otra que comporte reserva de plaza o ser personal estable o interino en vacante, a dedicación completa, con 10 años de servicios efectivos prestados en la UPV/EHU.

b) Pertenecer como personal funcionario de carrera o laboral fijo a alguno de los cuerpos docentes universitarios o alguna de las categorías docentes, respectivamente, y ocupar con carácter definitivo, plaza en la UPV/EHU en situación administrativa de servicio activo o en otra que comporte reserva de plaza o ser personal estable o interino en vacante, a dedicación completa, con 10 años de servicios efectivos prestados en la UPV/EHU.

c) Tener cumplidos al menos, a fecha 31 de agosto de 2022, 58 años en el caso de personal MUFACE clases pasivas o 61 años en el caso del personal acogido al Régimen General de Seguridad Social.

d) Acceder a la jubilación a fecha 31 de agosto del curso académico (entendiendo que éste se extiende del 1 de septiembre al 31 de agosto) en el que se cumpla la edad establecida en la Tabla 1 del referido artículo 3.6, que se indica a continuación. En caso de

Data horretan erretiroa hartu ezean, arautu egingo da langilearen egoera.

no acceder a la jubilación en dicha fecha se procederá a la regularización pertinente.

| **I. taula:** adina erretiroa hartzeko egunean (kasuan kasuko ikasturteko abuztuaren 31n), murrizketak hartu ahal izateko. | **Tabla I**. Edad (años) a la fecha de jubilación (31 de agosto del curso) para tener acceso a las reducciones. | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | **Curso 2022/23 ikasturtea** | **Curso 2023/24 ikasturtea** | **Curso 2024/25 ikasturtea** | **Curso 2025/26 ikasturtea** | **Curso 2026/27 ikasturtea** |
| **IRI – MUFACEko klase pasiboak**<br>**PDI.- MUFACE clase pasivas** | 60-65 | 60-65 | 62-65 | 64-65 | 65[1] |
| **IRI – Gizarte Segurantzako erregimen orokorra**<br>**PDI.- Regimen general de la seguridad social** | 63-67 | 63-67 | 65-67 | 66-67 | 67[1] |
| **1. oharra:** edo erretiroa hartzeko arautegi orokorrean ezarritako adina, arautegi hori aldatzen bada | **Nota 1**: O la que corresponda a la edad reglamentaria de jubilación en la normativa general si ésta se modifica | | | | |

1.2.2.- Baldintzak:

Baldintza hauetan murriztuko da irakats ahalmena:

Murrizketa bakarrik hartu ahal izango da erretiro arruntaren dataren (hau da, erretirorako adin legala betetzen den ikasturteko abuztuaren 31ren) aurre-aurreko lau ikasturteetan (egokitze tartean, erretirorako adina I. taulan zehaztutakoa izango da).

Irakats ahalmena murrizteko aukera egongo da, honako eskala honekin bat etorrita:

1.2.2.- Condiciones:

El disfrute del derecho a la reducción de la capacidad docente se llevará a cabo en las siguientes condiciones:

La reducción únicamente podrá disfrutarse en los 4 cursos inmediatamente anteriores a la fecha de jubilación ordinaria (entendiendo por tal el 31 de agosto del curso académico en el que se alcance la edad legal de jubilación, (durante el periodo transitorio la edad de jubilación queda referida a la establecida en la tabla I.)

Se establece la posibilidad de reducir la capacidad docente conforme a la escala siguiente:

| | | | |
|---|---|---|---|
| Erretiroa hartzeko ikasturtea ken 3 urte | % 10 | Curso de acceso a la jubilación menos 3 años | 10% |
| Erretiroa hartzeko ikasturtea ken 2 urte | % 20 | Curso de acceso a la jubilación menos 2 años | 20% |
| Erretiroa hartzeko ikasturtearen aurrekoa | % 30 | Curso anterior al acceso a la jubilación | 30% |
| Erretiroa hartzeko ikasturtea | % 40 | Curso de acceso a la jubilación | 40% |

**1.3.- Konpromisoak**

1.3.1.- Irakats ahalmena murrizteko, beharrezkoa da interesdunak konpromisoa hartzea bere eskarian zehaztu duen datan erretiroa hartzeko, hau da, adierazitako ikasturteko abuztuaren 31n, baldin eta badago 3.6 artikuluko 1. taulan zehaztutako adin tartearen barruan 2026/2027 ikasturtera arte, eta, data horretatik aurrera, 65 urte beteko dituen ikasturtean MUFACEko klase pasiboetakoa bada, edo 67 urte beteko dituen ikasturtean, Gizarte Segurantzakoa bada.

1.3.2.- Aurreko paragrafoan aipatutako konpromisoa justifikaziorik gabe bete ezean, langileak itzuli beharko ditu murriztuta izan dituen eskola orduak, eta kalte-galerak ordaindu beharko dizkio unibertsitateari konpromisoa hausteagatik.

**1.4.- Aurretik onartutako murrizketak aldatzea.**

Gobernu Kontseiluak 2022ko urriaren 20an onartutako Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planari jarraituz (bigarren xedapen iragankorra), erretiroei buruzko 2015eko uztailaren 24ko eta 2015eko azaroaren 27ko akordioetan zehaztutako neurriren bat baliatzen ari diren langileek aukera izango dute, 2022ko abenduaren 31ra arte, plan berrian jasota dauden neurrietakoren bat eskatzeko, baina uko egin beharko diete aurretik onartuta zituztenei eta egokitu egin beharko dute lanaldiaren murrizketa, kasuan kasuko

**1.3.- Compromisos**

1.3.1.- La reducción de la capacidad docente supone el compromiso y la aceptación por parte de la persona interesada de acceder a la jubilación el día señalado en su solicitud, esto es, el 31 de agosto del curso académico indicado, siempre y cuando se encuentre dentro del rango de edades señalado en la tabla I del artículo 3.6 hasta el curso 2026/2027 y, a partir de esa fecha el curso académico en el que se cumplan 65 años en caso del personal MUFACE clases pasivas o 67 años para el personal adscrito al régimen de Seguridad Social.

1.3.2.- En el supuesto de incumplimiento del compromiso indicado en el párrafo anterior, sin causa justificada, el trabajador o trabajadora afectado/a deberá reintegrar las horas lectivas de reducción disfrutada, así como proceder a la indemnización de los daños y perjuicios que el incumplimiento del compromiso haya ocasionado a la universidad.

**1.4.- Modificación de las reducciones de capacidad docente previamente concedidas.**

De conformidad con lo dispuesto en la Disposición Transitoria segunda del Plan de racionalización de recursos humanos en materia de jubilación aprobado por el Consejo de Gobierno en fecha 20 de octubre de 2022, el personal docente e investigador que ya se encuentre acogido a alguna de las medidas relacionadas con el tránsito a la jubilación, en virtud de los acuerdos de 24 de julio de 2015 y de 27 de noviembre de 2015 podrá solicitar, hasta el 31 de diciembre de 2022, el acceso a las reducciones de capacidad docente en las

adinaren arabera. Horretarako, eskaria aurkeztu beharko dute I. eranskina betez eta beren aukera zehaztuz

## ***2.- ERRETIRO PARTZIALA.***

### 2.1.- Helburua eta pertsona eremua.

Hurren zehaztuko diren eskakizunak betetzen dituzten lan kontratudun irakasle-ikertzaileek erretiro partziala eskatu ahal izango dute deialdi honetan ezartzen diren baldintzetan.

### 2.2.- Betebeharrak

a)Hauetako bat izatea:

1.- Unibertsitateko irakasle kategorietakoren bateko lan kontratudun finkoa, eta UPV/EHUn behin betiko lanpostu bat betetzen egotea zerbitzu aktiboko administrazio egoeran edo lanpostua gordeta izatea dakarren beste edozeinetan.

2.- Lan kontratudun irakasle-ikertzaile egonkorrak.

3.- Plaza hutsean dauden bitarteko lan kontratudunak.

b)UPV/EHUren zerbitzura gutxienez 6 urte beteta izatea, erretiro partziala hartu aurre-aurrekoak.

c)Arduraldi osoan aritzea.

d)Beteta izatea 62 urte eta 4 hilabete (35 urte eta 9 hilabete edo gehiago kotizaturik) edo 63 urte eta 8 hilabete (33 urte kotizaturik), baina bete gabe izatea Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko zazpigarren xedapen iragankorrari lotuta testu bereko 205.1.a) artikuluan erretiro arrunta hartzeko zehaztutako adina, urriaren

condiciones establecidas en el nuevo plan, renunciando a las reducciones concedidas previamente y con la consiguiente adecuación de la reducción de la jornada, según la edad que corresponda. Para ello, deberá presentar la correspondiente solicitud cumplimentando el anexo I e indicando la opción correspondiente

## ***2.- ACCESO A LA JUBILACIÓN PARCIAL***

### 2.1.- Objeto y Ámbito personal.

El personal docente e investigador laboral que cumpla los requisitos indicados a continuación podrá solicitar el acceso a la jubilación parcial en los términos establecidos en la presente convocatoria.

### 2.2.-Requisitos.

a)Pertenecer a alguno de los siguientes colectivos:

1.-Personal laboral fijo, perteneciente a alguna de las categorías docentes que ocupe con carácter definitivo plaza en la UPV/EHU en situación administrativa de servicio activo o en otra que comporte reserva de plaza.

2.-Personal laboral estable

3.-Personal laboral interino en vacante

b)Contar con, al menos, 6 años de servicios efectivos prestados en la UPV/EHU (inmediatamente anteriores a la fecha de jubilación parcial).

c)Prestar servicios en régimen de dedicación a tiempo completo.

d)Haber cumplido 62 años y 4 meses (35 años y 9 meses o más cotizados) ó 63 años y 8 meses (33 años cotizados), y no alcanzar la edad establecida en el artículo 205.1.a), en relación con lo establecido en la Disposición Transitoria Séptima de la Ley General de la Seguridad Social, en la redacción dada por el Real Decreto Legislativo

30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak lege horren testu bateginari emandako idazkeraren arabera.

8/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social, para acceder a la jubilación ordinaria.

e)Interesduna erretiro partziala eskatzeko egoeran egotea, legean ezarritako baldintzak betetzen dituelako. Hau da:

e)Reunir las condiciones necesarias para solicitar la jubilación parcial por cumplir los requisitos establecidos por la legislación vigente de aplicación

| **Erretiro urtea (erretiro partziala)**<br><br>**Año del hecho causante (jubilación parcial)** | **Erretiroa hartzean izan beharreko adina, kotizazio aldien arabera**<br><br>**Edad exigida según periodos cotizados en el momento del hecho causante.** | | **Erretiroa hartzean izan beharreko adina, 33 urte kotizatuta izanez gero**<br><br>**Edad exigida con 33 años cotizados en el momento del hecho causante** |
|---|---|---|---|
| 2023 | 62 urte eta 4 hilabete<br><br>62 años y 4 meses | 35 urte eta 9 hilabete edo gehiago<br><br>35 años y 9 meses o más | 63 urte eta 8 hilabete<br><br>63 años y 8 meses |

**2.3.- Baldintza orokorrak**

2.3.1 Erretiro mota hau hartzen duten langileek aldi baterako kontratu partzial bat izenpetuko dute, lanaldi osoaren % 50ekoa.

Kontratu hori lotuko zaio txandako langile baten kontratuari. Horrek, gutxien dela, % 50eko lanaldia izango du.

2.3.2.- Lanaldi partzialeko kontratua amaituko da erretiro arrunta hartzeko adinera heltzean, hau da, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko zazpigarren xedapen iragankorrari lotuta testu bereko 205.1.a) artikuluan zehazten den adina betetzean, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak lege horren testu bateginari emandako idazkeraren arabera.

**2.3.- Condiciones generales**

2.3.1. El personal que opte por esta modalidad de jubilación suscribirá un contrato temporal a tiempo parcial del 50% de la jornada completa de referencia.
Este contrato se vinculará con un contrato de relevo de una persona relevista de, al menos, el 50% de la jornada.

2.3.2.- La duración del contrato a tiempo parcial será hasta alcanzar la edad de jubilación ordinaria prevista en el artículo 205.1.a), en relación con lo establecido en la Disposición Transitoria Séptima de la Ley General de la Seguridad Social, en la redacción dada por el Real Decreto Legislativo 8/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social.

2.3.3.- Erretiro partziala hartzen duten langileek modu hauetara eman ahal izango dituzte zerbitzuak:

a).- Lanaldi partzialean (% 50), **erretiro partzialeko egoerak dirauen artean.** Kasu honetan, tutoretzak lanaldi partzialari dagozkionak izango dira, hau da, **astean 3 ordu**.

b).- Lanaldi osoan (% 100), **metatuz,** erretiro partziala hartu ondo-ondoko lauhilekoetan, lanaldi partzialeko kontratuari dagozkion irakastordu guztiak. Hau da, metaketa aldian zehar, lanaldi osoari dagokion irakaskuntza eman beharko da. Kasu honetan, lanaldi osoari dagozkion tutoretzak egin beharko dira, hau da, **astean 6 ordu.**

2.3.3.- La prestación de servicios por la persona jubilada a parcial podrá realizarse:

a).- A jornada parcial (50%) **durante toda la vigencia de la situación de jubilación parcial**. En este caso, las tutorías serán las correspondientes a la jornada parcial, es decir, de **3 horas semanales.**

b).-.A jornada completa (100%), **acumulando,** en los cuatrimestres inmediatos a la fecha de jubilación parcial, la totalidad de las horas de trabajo docentes correspondientes a su contrato de trabajo a tiempo parcial. Esto es, durante el periodo de acumulación deberá impartirse la docencia correspondiente a la jornada completa. En este caso, las tutorías que deberán realizar serán las correspondientes a la jornada completa, es decir, de **6 horas semanales.**

**2.4.- Ordainsariak**

Administrazioak lanaldiaren % 50ri dagozkion ordainsariak ordainduko dizkie erretiro partziala hartzen duten langileei lanaldi partzialeko kontratu osoan zehar, aukeratu duten modalitatea gorabehera (orduak metatuta nahiz metatu gabe); halaber, langileak altan mantenduko ditu Gizarte Segurantzan erretiro osoa hartzeko egunera arte.

Lanaldi partzialeko kontratuari dagozkion ordainsariak bateragarriak izango dira Gizarte Segurantzako arauek langile txandakatuari erretiro partzialagatik aitortutako pentsioarekin.

**2.4.- Retribuciones**

Con carácter general, con independencia de la modalidad de prestación de servicios elegida (con o sin acumulación) por el personal jubilado parcial, la Administración abonará las retribuciones correspondientes al 50% de la jornada durante todo el periodo de vigencia del contrato a tiempo parcial; así mismo, se le mantendrá en situación de alta a efectos de la Seguridad Social hasta la fecha de jubilación plena.

Las retribuciones correspondientes al contrato a tiempo parcial serán compatibles con la pensión que la normativa de Seguridad Social reconozca al personal relevado en concepto de pensión por jubilación parcial.

**2.5- Erretiro partzialerako eskaria**

Erretiro partzialeko pentsiorako eskaria eta gainerako tramiteak langileak egin beharko ditu Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean. Era berean, erakunde horri egin beharko dizkio gai honen inguruko kontsulta guztiak, esaterako pentsioaren aitorpenari, zenbatekoari edo galtzeari buruzkoak.

**2.5.- Solicitud de jubilación parcial**

La solicitud y demás trámites relativos a la pensión de jubilación parcial deberán realizarse por el/la trabajador/a ante el Instituto Nacional de la Seguridad Social. Así mismo, podrá consultar ante dicho organismo cualquier otro aspecto relativo a la pensión de jubilación parcial, tales como su reconocimiento, cuantía o extinción.

## 3.- IRAKATS AHALMENA MURRIZTEKO NAHIZ ERRETIRO PARTZIALERAKO ESKARIARI DAGOZKIEN XEDAPENAK.

### 3.1.- Eskariak aurkezteko epea

Eskariak aurkezteko epea, bai erretirorako konpromisoarekin irakats ahalmena murriztekoak, bai ahalmenaren murrizketa egokitzekoak eta bai erretiro partzialerakoak, deialdia hau argitaratzen denean hasi eta 2022ko abenduaren 31n amaituko da.

Eskariak aurkezteko epea ikusita, ezin izango da irakats ahalmenaren murrizketarik eskatu 2022/2023 ikasturterako.

Erretiro partzialerako eskarietan, **gutxienez hiru hilabeteko tartea** utzi beharko da eskaria aurkezten den datatik erretiro partziala hartu nahi den datara. Eskarian atzera egin ahal izango da txandako langilea aukeratzen den egunera arte.

### 3.2.- Aurkeztu beharreko dokumentuak

3.2.1.- Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek eskaria aurkeztu beharko dute deialdi honi erantsitako eredu arautuan (I. eranskina). Bertan, markatu beharko dute hartu nahi duten aukera (irakats ahalmena murriztea erretirorako konpromisoarekin; lehengo murrizketa aldatzea eta sistema berrira egokitzea; edo erretiro partziala).

3.2.2.- Irakats ahalmena murriztea: Gizarte Segurantzako langileen kasuan, irakats ahalmena murrizteko eskabide-orriarekin batera erakunde kudeatzailearen ziurtagiria

## 3.-DISPOSICIONES COMUNES A LA SOLICITUD DE REDUCCIÓN DE CAPACIDAD DOCENTE Y AL ACCESO A LA JUBILACIÓN PARCIAL.

### 3.1.- Plazo de presentación de las solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes tanto de reducciones de capacidad docente con compromiso de jubilación, como de adecuación de la reducción de capacidad y de jubilación parcial será desde el día siguiente a la publicación de la presente convocatoria hasta el 31 de diciembre de 2022.

Transcurrido el plazo de presentación de solicitudes no cabrá la posibilidad de solicitar la reducción de la capacidad docente para el curso 2022/2023.

En el caso de petición de acceso a la jubilación parcial la fecha indicada en el impreso de solicitud para el acceso a la jubilación parcial deberá dejar un plazo de **al menos tres meses** entre la fecha de presentación de la solicitud y la fecha solicitada de acceso a la jubilación parcial. Pudiendo desistirse de la solicitud hasta la fecha de selección de la persona relevista.

### 3.2.- Documentación a presentar

3.2.1.- El personal que desee participar en la presente convocatoria deberá presentar la correspondiente solicitud en el modelo normalizado anexo a esta convocatoria (Anexo I) marcando la opción a la que desea acogerse (solicitud de reducción, por compromiso de jubilación, de la capacidad docente, modificación de la reducción de capacidad docente previamente concedida y acceso al nuevo régimen, o acceso a la jubilación parcial)

3.2.2.- Reducción de capacidad docente: En el caso del personal sujeto al régimen general de la seguridad Social al impreso de solicitud de reducción de capacidad docente deberá

aurkeztu beharko da, interesdunak ohiko erretiroa hartzeko duen adina jasotzen duena.

acompañarse certificado de la entidad gestora en el que conste la edad a la que la persona interesada puede acceder a jubilación ordinaria.

Erretero partziala: Erretiro partzialerako eskariarekin batera Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak emandako lan bizitza eguneratua aurkeztu beharko da, eta Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren ziurtagiri edo txostena, ziurtatzen duena langileak betetzen dituela erretiro partziala hartzeko betebeharrak.

Jubilación parcial: Al impreso de solicitud de jubilación parcial deberá acompañarse informe de vida laboral actualizado emitido por la Tesorería General de la Seguridad Social así como certificación o informe que acredite que el trabajador o trabajadora reúne los requisitos para acceder a la jubilación parcial emitido por el Instituto Nacional de la Seguridad Social.

3.2.3.- Eskaria UPV/EHUko erregistro elektronikoan aurkeztu beharko da (https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea betez (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 14e) artikulua) eta UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakiari jarraituz, zeinaren bidez onartu zen interesdunak eta UPV/EHUko langileak harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibidea. **Eskaria Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzari zuzendu beharko zaio, "jasotzailea" –ren eremuan aukeratuz "Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza/Irakasle-Ikertzaileen Zerbitzua U020000273"**. Identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili beharko da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUko langile txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

3.2.3.- La solicitud deberá presentarse en el registro electrónico de la UPV/EHU ( https://egoitza.ehu.eus/registro-electronico )de conformidad con lo establecido en el artículo 14e) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en la Resolución del Secretario General de la UPV/EHU de 28 de abril de 2021, por la que se aprueba la instrucción sobre identificación y firma electrónica de las personas interesadas en sus relaciones electrónicas con la UPV/EHU y de las personas empleadas que prestan servicios en la misma. **La solicitud deberá dirigirse al Vicerrectorado de Personal Docente e Investigador, indicando en el apartado destino el Vicerrectorado de personal Docente e investigador/Servicio de Personal Docente e Investigador U020000273.** Para ello podrá utilizarse el certificado electrónico de empleado o empleada de la UPV/EHU, el certificado Digital de Usuario de Izenpe, el DNI electrónico o el certificado de la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre FNMT-CERES.

Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskariak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko

Igualmente, dicha solicitud podrá ser presentada en los restantes registros electrónicos de cualquiera de las entidades pertenecientes al sector público, y en casos excepcionales, presencialmente en las oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU. Las solicitudes y documentos presentados en las oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU serán digitalizados para su incorporación al expediente administrativo electrónico, devolviéndose los originales a la persona interesada, previa su identificación ante

adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

la persona funcionaria y otorgamiento de consentimiento expreso para esta actuación, de conformidad con la Resolución del Secretario General de la UPV/EHU de 28 de abril de 2021, por la que se aprueba la instrucción sobre oficinas de asistencia en materia de registros, la presentación en la UPV/EHU de solicitudes, escritos u otras comunicaciones a través de persona funcionaria pública habilitada y el registro de personas funcionarias públicas habilitadas.

**3.3- Eskarien ebazpena**

Eskariak aurkezteko epea amaitu ostean, Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak eskatzaileei jakinaraziko die eskarien ebazpena.

a) Irakats ahalmena erretirorako konpromisoarekin murrizteko eskarien onarpenean zehaztuko da zein datatatik aurrera hasiko den aplikatzen onartutako murrizketa.

b) Erretiro partzialerako eskarien onarpenean zehaztuko da erretiro partziala hartzeko data. Data hori interesdunak eskatutakoa izango da, aplikatu beharreko arautegiak hala baimentzen badu, eta, betiere, administrazioak ez badu jarri behar beste data bat hala komeni delako irakaslanaren lauhilekako antolaketagatik, edota erretirorako data atzeratu behar ez bada txandako langilearen kontratazioarekin zerikusia duten arrazoiengatik.

Eskaria onartu zaien irakasle-ikertzaileek pentsioa jasotzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, erretiro partzialera pasatzeko eta pentsioa aitortzeko ohiko tramiteak egin ahal izateko.

**3.3- Resolución de las solicitudes**

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, desde el Vicerrectorado de personal Docente e Investigador se notificará las resoluciones a las personas solicitantes.

a) En las resoluciones de concesión de reducción por compromiso de jubilación de la capacidad docente se indicará la fecha en la que surtirá efecto la reducción de capacidad docente reconocida.

b) En las resoluciones de concesión de acceso a la jubilación parcial se pondrá de manifiesto la fecha de jubilación parcial. Esa fecha será la solicitada por la persona interesada cuando lo permita la normativa de aplicación, salvo que razones relacionadas con la estructura cuatrimestral de la docencia aconsejen a la administración determinar una fecha diferente o que razones relacionadas con la contratación de la persona relevista demoren la fecha de inicio de la jubilación solicitada.

El personal docente e investigador cuya solicitud haya sido aceptada deberá aportar la documentación necesaria para acreditar el cumplimiento de los requisitos de acceso a la pensión correspondiente al objeto de seguir el trámite ordinario para el pase a la situación de jubilación parcial y reconocimiento de la pensión.

**3.4.- Bateraezintasunak**

Erretiro partziala bateraezina da irakats ahalmena erretirorako konpromisoarekin murrizteko eskari mota guztiekin. Beraz, irakats ahalmena erretirorako konpromisoarekin murrizten duten pertsonek

**3.4.- Incompatibilidades**

El acceso a la jubilación parcial es incompatible con la solicitud de cualquier tipo de reducción de la capacidad docente por compromiso de jubilación. Por lo que las personas que se acojan a la reducción por compromiso de jubilación de

ezin izango dute erretiro partziala eskatu, eta erretiro partziala hartzen dutenek, berriz, ezin izango dute irakats ahalmena murriztu erretirorako konpromisoarekin.

**3.5.- Aurrekontua egotea**

Eskarien onarpena unean unean aurrekontu nahikoa dagoela egiaztatzearen menpe egongo da.

**3.6.- Azken xedapena.**

Erretiro partzialari, txanda kontratuari edo erretiro arruntari buruzko arautegietan aldaketa mamitsurik badago, erabaki honi eragiten dionik, berrikusi egin beharko da deialdi hau

**3.7.- Errekurtsoak**

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, baina, beraren kontra, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari hilabeteko epean, edo, bestela administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean gizarte arazoetako dagokion Bilboko epaitegian bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

su capacidad docente no podrán participar en la convocatoria de acceso a la jubilación parcial, ni las personas que accedan a la jubilación parcial podrán reducir por compromiso de jubilación su capacidad docente.

**3.5.- Disponibilidad presupuestaria**

La aceptación de las solicitudes formuladas estará condicionada a la disponibilidad presupuestaria, debidamente acreditada, existente en cada momento.

**3.6.- Disposición final**

Cualquier modificación sustancial de la normativa reguladora de la jubilación parcial, el contrato relevo o la jubilación ordinaria que afecte al contenido de la presente resolución implicará la revisión de la misma.

**3.7.- Recursos**

Contra la presente resolución, que agota la vía administrativa, cabe recurso potestativo de reposición en el plazo de 1 mes ante el Vicerrector de Personal Docente e Investigador, o directamente recurso contencioso administrativo ante el correspondiente Juzgado de lo Social de Bilbao en el plazo de 2 meses a contar del día siguiente al de su publicación.

30628936C FEDERICO RECART (R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por 30628936C FEDERICO RECART (R: Q4818001B)
Fecha: 2022.11.30 08:18:30 +01'00'

Federico Recart Barañano
IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEA
VICERRECTOR DE PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR

Erretoreak eskuordetuta, 2021eko urtarrilaren 28ko Ebazpenaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAA)/
Por delegación de la Rectora efectuada mediante Resolución de 28 de enero de 2021 (BOPV de fecha 12 de febrero de 2021